


DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 1 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

1. ZERGA ORDENANTZA

ZERGA KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA OROKORRA

AURKIBIDEA:

I. Xedapen orokorrak:
1. Izaera orokorreko xedapenak
2. Tributuen kudeaketa:
2.1. Errolda
2.2. Onura fiskalak ematea
3. Tributua biltzea:
3.1. Ordaintzeko epeak
3.2. Tributua ordaintzeko plan pertsonalizatua
3.3. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea
4. Ikuskapena
5. Arau-haustea eta zigorrak
6. Administrazio bidean dauden egintzak berrikustea
II. Azken xedapena

1. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udaltzako 2016/10/27 eguneko osoko bikura erabakiz


Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/11/04 eguneko 123 zk.an

Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2016/12/21

Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/12/28 eguneko 146 zk.an

Indarrean sartu: 2017/01/01

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 2 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udal. Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udal. Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

1. ZERGA ORDENANTZA

KUDEAKETARI, BILKETARI ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.- IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

Laudio Udalerriak ordenantza orokor honen arabera egingo ditu tributu guztiei dagozkien kudeaketa, bilketa eta ikuskapen-egintzak.

Ordenantza hau Laudio udalerrri osoan aplikatuko da.

Udal administrazioak egingo du tributuen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena, Foru Aldundiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen aldeko eskuordetzen eta, orokorrean, herri administrazioekiko lankidetzatza formulen kalterik gabe.

Halaber, premiazkoa bada, udal administrazioak erabaki ahalko du udalerrria partaide duten erakundeek aipatu diren zereginetan laguntzeko eman litzaketan zerbitzuak erabiltzea.

2.- TRIBUTUEN KUDEAKETA

Tributu-kudeaketa bere bi alderdietan gauzatuko da, alegia, likidazioan eta bilketan. Eginkizuna legez esleituta duten funtzionarioei dagokie bi alderdi horiek modu berezian gauzatzea, administrazio honetako gobernu organoek antolatzen eta zuzentzen dituzten eskudantzien kalterik gabe.

Alkate-udalburuari dagokio tributuen kudeatzeko eta biltzeko behar diren administrazio-egintzak ematea, horretarako eskuordetzan izan ditzakeen eskudantzien kalterik gabe.


Ordenantza honetan aurreikusi ez diren beste alderdi guztiei dagokienez, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako Zerga Orokorrei buruzkoa aplikatuko da.

2.1. Errolda

Erroldatu edo matrikulatu beharra ezarri ahalko zaie euren izaeragatik zerga-egitateen iraupena dakarten tributuen.

Bi modutan egingo dira altak: subjektu pasiboaren aitortzen bidez edo administrazioak ofizios has dezakeen ikertze-ekintzaren bidez. Tributuen ordenantzan xedatutakoaren arabera ordaintzeko betebeharra sortzen denetik aurrera izango du eragina altak, betiere, betebeharrak ez badu preskribatzen. Alta horiek behin betiko jasota geratuko dira hurrengo aldiko erroldan edo matrikulan.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 3 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Subjektu pasiboek formulatu beharko dituzte bajak eta behin beharrezko egiaztapenak eginda, erroldatik behin betiko kenduko dira. Bajak eragina izango du aurkeztu den aldiaren hurrengo alditik aurrera, ordenantza bakoitzean ezartzen diren salbuespenetan izan ezik.

Zergadunek udal administrazioari jakinarazi beharko diote erroldan alta, baja edo aldaketaren bat eragin dezakeen edozein gorabehera, gertatzen denetik hogeita hamar (30) egun balioduneko epean.

Alkate-udalburuak erroldak eta matrikulak onetsi beharko ditu ekitaldi bakoitzean eta, behin onetsita, jendaurrean ikusgai ipiniko dira hamabost (15) egunez, zilegizko interesa duten pertsonak azter ditzaten eta, baldin balegokie, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erroldak edo matrikulak jendaurrean ipinita, jakinarazitzat joko dira pertsona interesatuen egintza bakoitzerako jasota dauden kuoten likidazioak, baina horrek ez du esan nahi pertsona interesatuek borondatezko epealdia agortzen den hurrengo egunetik hasita hamabost egunetako epean likidazioen aurka egiteko duten eskubidea galtzen dutenik.

Udaletxeko iragarki taulan ipini behar den iragarkian adieraziko da non ipiniko diren jendaurrean ikusgai erroldak eta matrikulak.

2.2. Onura fiskalak ematea

a) Salbuespenak, murriztapenak, hobariak, kenkariak eta gainerako onura fiskalak eman, ukatu edo luzatzeko tributu bakoitzaren arau espezifikoak errespetatu beharko dira eta modu arautuan egingo da, baina ezin izango da inolaz ere onartu salbuespen, hobari eta gainerako onura fiskalen esparrua ezarritako muga zehatzez gaindi hedatzeko analogiarik.

b) Legeetan esanbidez kontrakoa ezarri ezean, erreguzko izaera izango dute onura fiskalen emakidek eta, beraz, instantzia baten bidez eskatu beharko zaizkio alkate-udalburuari. Instantziarekin batera pertsona eskatzaileak nahikotzat eta egokitzat jotzen dituen justifikazioak aurkeztu beharko dira.


c) Oro har, onura fiskalak ematean ez da atzeraeraginik egongo, beraz, pertsona interesatuak eskatu ondoren tributua sortzen den unetik aurrera hasiko da onura fiskalen eragina.

d) Pertsona fisiko bati edo erakunde bati banaka eta eskaera egin ondoren eman dakizkikeen tributu-salbuespenak, -murriztapenak, -hobariak eta, oro har, onura fiskalak eta diru-laguntzak lortzeko eskaera guztiak ukatuko dira, baldin eta subjektu pasiboa ez baditu beteta tributu-betebehar guztiak eskaera egiteko unean. Eskaerari ezezkoa emateko ebazpena horretan oinarrituko da eta behar bezalako forman jakinaraziko zaio pertsona interesatuari.

Arau honetatik salbuetsita gera daitezke Gizarte Ongizate Arloko laguntzak, Arloak hori justifikatzeko txostena ematen badu.

e) Denbora tarte jakin baterako ematen diren onura fiskalak ezin izango zaizkio aplikatu onura fiskalak baldin eta lortu dituen subjektu pasiboa hiru (3) hilabetez edo denbora luzeagoz atzeratu bada tributu-betebeharrak betetzeari dagokionez.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 4 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludioiko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludioiko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360547 C3WMJ-6ZR8Y-95NDD E/C1A91B95DC1C0A4B9D7C446F8946C9D2C8E4) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=28&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

f) Betebarren atzeratze horrek urtebete (1) edo gehiago iraungo balu, Administrazioak ofizioz indargabetuko ditu onurak betebarren bat betetzeari utzi zitzaien unetik aurrera. Horren ondoren, betebarrak betetzeak ez du bertan behera utziko indargabetzea.

g) Ogasun eta Ondare Arloak espedientea izapidetuko du eta ebazpen-proposamena helaraziko dio alkate-udalburuari, hari baitagokio onura fiskala emateko edo ukatzeko erabakia hartzea.

h) Azaroaren 23ko 31/1998 Foru Arauaren, telekomunikazio-eragiketei aplikatu beharreko tokiko tributuei buruzkoaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, telekomunikazio-sare publikoak instalatzeko banakako lizentzien titular diren eta zerbitzu publikoaren betebarrak aplikagarri zaizkien telekomunikazio-operadore guztiek tokiko tributu eta prezio publikoak ordaindu behar dituzte, baina, hala ere, legezkiekeen tributu-zorrrak urteroko maiztasuna duen konpentsazio batekin ordeztu daitezke; konpentsazio hori izango da operadore horiek udalerrri bakoitzean duten fakturaziotik lortzen dituzten diru-sarreraren % 2. Araubide berezi hori ez da aplikatzekoa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kasuan. Kasu horretan, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua eta hori garatzeko xedapenak aplikatu beharko dira.

3.- TRIBUTUAK BILTZEA

Udalak berak egingo ditu tributu-kredituak eta gainerako eskubide publikoak biltzearekin lotutako kudeaketa-lana ordenantza honetan aurreikusi gabeko alderdi guztiei dagokienez, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan, alegia, Arabako Zerga Orokorrei buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat eta maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onartutako Arabako Lurralde Historikoko Diru-bilketaren Erregelamenduan nahiz ondorengo aldaketetan xedatutakoarekin bat.

3.1. Ordaintzeko epeak

Epe hauen barruan ordaindu beharko dira administrazioak egindako likidazioen ondoriozko tributu-zorrrak:

- Hileko 1. egunetik 15.era jakinarazitakoak: jakinarazpena egiten den egunetik hurrengo hileko 20. egunera edo hurrengo egun baliodunera arte.
- Hileko 16. egunaren eta azken egunaren artean jakinarazitakoak: jakinarazpena jaso den egunetik hurrengo bigarren hileko 5. egunera edo hurrengo egun baliodunera arte.


Udalak tributu eta prezio publiko bakoitzerako ezartzen dituen egunetan eta epeetan ordaindu beharko dira jakinarazpen kolektiboa eta aldizkako duten zorrrak.

3.2. Tributuak ordaintzeko plan pertsonalizatua

a. Tributuak ordaintzeko plana pertsonalizatua ezarri da borondatezko epearen barruan jakinarazpen kolektiboa eta urteroko kobrantza duten tributu hauek zatika ordaintzeko:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga (hiri-lurra eta landa-lurra).
- Ekonomi jardueren gaineko zerga (EJZ).

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 5 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07




Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- Zaborrak biltzeko eta kentzeko tasa eta estolderia tasa.
- Udal kanposantuko zerbitzuaren tasa.

b. Plan horretan sartu ahalko dira aipatutako zergaren bat edo batzuen zergadun direnak, betiere, hala eskatzen badute eta jarraian zehaztutako betebeharrak eta jarraian zehaztutako baldintzetan betetzen badituzte:

- Planaren onuradunek udal ogasunarekiko zorrak eta betebeharrak ordainduta izan behar dituzte eskaera egiteko unean.
- Pertsona eskatzaileek zatika ordaindu nahi dituen zorren ordainagiriak adierazi beharko ditu, haren jabetzako banketxeko kontu bakarrean helbideratzeko. Plan berberaren barruan hainbat zergadunen ordainagiriak sartu ahalko dira.
- Zatikatzeko-kuotak 50,00 euro edo gehiagokoak izan beharko dira; ez da berandutze-interesik eskatuko planaren objektu diren epeko kopuruen diru-zenbatekoei dagokienez.
- Karguen maiztasuna hiruhilerokoa izango da, hil hauetan: martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. Epea dagokion hileko azken egunean amaituko da eta egun hori, jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunean.
- Tributuak ordaintzeko plan pertsonalizatua alta eskatzeko epea, urte bakoitzeko urriaren 1etik abenduaren 31 bitartekoa izango da. Udaletxeak horretarako prestatutako inprimakia beteta egingo da alta. Bertan adieraziko da, nahitaez, planaren objektu diren ordainagiriaren identifikazio datuak eta ordainketak helbideratzeko banketxeko kontu zenbakia. Aurreko ekitaldiko ordainagiriak dagokien tributuen kobrantza-eroldan azaldu beharko dira, altaren eragina izango duen urtearen aurreko urtean.
- Ordainagiri berriak eranstea dakarten aldaketak edozein unetan eskatu ahalko dira, baina hurrengo ekitaldian izango dute eragina. Edozein unetan eska daitezke ordainagiriak edo plana bera bertan behera uztea dakarten aldaketak. Halaber, interesatuek edozein unetan aurreratu ahalko dituzte kuoten ordainketak.
- Hau izango da zatikatutako lehen hiru epeetako bakoitzaren zenbatekoa: tributuak ordaintzeko plan pertsonalizatua eskatu den aurreko urtean ordaindutako kuoten zenbateko osoa zati lau. Hau izango da laugarren eta azken epearen zenbatekoa: planean sartutako ordainagiriaren zenbateko osoaren eta lehenengo hiru epeetan sartutako zenbatekoaren arteko aldea.
- Eskatzaileak eperen bat ordaindu gabe uzten badu, ez zaizkio kontuan hurrengo epeak kargatuko eta bere plana ezeztatutaz joko da, beraz, ordaintzeko bide normalak erabilita ordaindu beharko du geratzen zaion zorra, borondatezko epean edo exekutiboan, kasuaren arabera; egindako ordainketak dagozkion eroldako konturako diru-sarrera gisa geratuko dira.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 6 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360547 C3WMJ-6ZR8Y-95NDD E/C1A91B95DC1C0A4B9D7C446F8946C9D2C8E4) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I


- Tributuak ordaintzeko plan pertsonalizatua automatikoki luzatuko da titularrak alta eman duen ekitaldi bakoitzaren ondorengo ekitaldian, baldin eta interesatuak ez badu formulatu horrekiko berriazko ukoa eta ez baldin badu derrigorrezko exekuzio epean ordaintzeko zorrik.
- Aipatu den planean sartzeak ez dakar inolako aldaketarik egindako likidazioen aurka errekurtsoak ipintzeko epeei dagokienez, ezta zerga kudeaketaren gainerako alderdiei dagokienez ere, beraz, zerga kudeaketa bere araudi espezifikoa arabera araututa jarraituko du.
- Baldin eta eskatzaileak banku-helbideratze bidez planean sartutako ordainagiri bat edo batzuk ordaintzen baditu, helbideratze hori deuseza izango da eta ez du eraginik izango, planean agindutako helbideratze berriak ordeztuko baitu.”

3.3. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea

I. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea eskatzea.

1. Zuzenbide publikoko diru-sarrengatiko zorrak, tributuzkoak izan ala ez, borondatez ordaintzeko epe barruan edo exekuzio epean daudenean, geroratu edo zatikatu egin ahal izango dira, salbu eta idatzi-zati honetako 2. atalean azaldutako baldintzak bateratzen direnean eta, betiere, baldin eta ordaindu behar duenak alde aurretik eskatu badu eta bere ekonomia-finantza egoerak aldi baterako ordaintzea eragozten badio ordainketa ezarritako epean egitea.
2. Kasu hauetan ezingo da eskatu ordainketa geroratzea edo zatikatzea:
 - a) Zorraren zenbatekoa 50,00 euro baino gutxiago denean.
 - b) Legeek edo udal araudiak debekatu egiten dutenean.
 - c) Espedientea izapidetzen jarraitzeko ezinbestekoak diren efektu tinbredun edo transakzio telematiko bidez ordainarazteko zorrak direnean.
 - d) Ordaintzeko betebeharra duenari jakinarazi zaionean bahitutako ondasunak besterentzeko erabakia.
3. Kasu hauetan onartuko da ordainketak geroratzea edo zatikatzea:
 - a) Zorra autolikidazio bidez aitortu behar denean eta ez denean autolikidazioa aurkeztu alde aurretik edo geroratzeko edo zatikatzeko eskaerarekin batera.
 - b) Eskaerak ez duenean inolako aldaketa esanguratsurik aurretik ukatu diren beste eskaerekin alderatuta.
4. Ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko espedienteen ondorengo izapidetzea errazte aldera, borondatezko epean edo exekuzio epean dauden zorrei dagokien eskaeren kasuan, kasuan kasuko ebazpenak hartuko dira, betiere, bereizketa hauek eginda:
 - a) Zorrak borondatezko aldian daudenean egindako eskaerak.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 7 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360547 C3WMJ-6ZR8Y-95NDD E/C1A91B95DC1C0A4B9D7C446F894E46C9D2C8E4) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- b) Zorrek exekuzio epean dauden bitartean eta premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jaso aurretik egindako eskaerak.
 - c) Premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jaso ondoren eta ZFAOaren 61.6 artikuluan ezarritako epeak agortu aurretik egindako eskaerak.
 - d) ZFAOren 61.5 artikuluan ezarritako epeak agortu formulatutako eskaerak.
5. Sei hilabeteko epean jakinarazi beharko dira geroratzeak eta zatikatzeak onartzeko edo ukatzeko ebazpenak. Epe hori igarotzen bada inolako jakinarazpenik jaso gabe, eskaera ez onartutzat hartu ahalko da, berraztertzeke errekurtsioa ipintzearen ondorioetarako.
 6. Aurreko idatzi-zatian aipatu den ebazpenaren jakinarazpena eta ordainketaren geroratze-aldian egin beharreko komunikazio oro ordaindu behar duenari, zordunari, zuzenduko zaizkio eta hartzaileek hautatutako moduan egingo dira edo, bestela, Udalak derrigorrezkotzat ebazten duen eran. Zehazkiago, pertsona juridikoei eragiten dieten ebazpenak bide telematikoz jakinaraziko dira.
 7. Ordainketen geroratzeak eta zatikatzeak onartzeko ebazpenek ordainketak egiteko egutegia zehaztuko dute. Ordainketa egunak beti izango dira hilabete bakoitzeko 1. egunarekin bat; egun horretan kargatuko da ordainagiria zordunak izendatutako banku-kontuan.
 8. Geroratzea edo zatikatzea onartzeko ebazpenaren jakinarazpenean zehaztuta joango dira berandutze-interesengatik ordaindu beharreko zenbatekoak eta eskatzaileari ohartaraziko zaio emandako epeen barruan bermerik ez eratzeko edo ordainketak ez egiteak izan ditzakeen ondorioez.


II. Geroratzei eta zatikatzei dagozkien gaiei buruz ebazteko organo eskumendunak.

Alkate-udalburuari dagokio borondatez ordaintzeko epean nahiz epe exekutiboan zorrek geroratzeko eta zatikatzeke eskaerei buruz ebazteko eskumena, ordenantza honetako 2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

III. Borondatez ordaintzeko epean zorrek geroratzeko eta zatikatzeke eskaerak formulatzeko epea

1. Borondatez ordaintzeko epean dagoen zor bat geroratzea edo zatikatzea eska daiteke borondatezko ordainketa egiteko aplikagarri den araudian finkatutako epearen barruan.
2. Ez badago zorrek borondatezko epean ordaintzeko epe zehatzak ezartzen dituen araudi espezifikorik, epe hauek errespetatuta formulatu beharko da eskaera:
 - a) Udalak egindako likidazioen ondoriozko zorrek, hil bakoitzeko 1. eta 15. egunen artean jakinarazitakoak: jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hileko 20. eguna arte edo, hori jaieguna balitz, hurrengo egun balioiduna arte.
 - b) Udalak egindako likidazioen ondoriozko zorrek, hil bakoitzeko 16. egunaren eta azken egunaren artean jakinarazitakoak: jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo bigarren hileko 5. egunera arte edo, jaieguna balitz, hurrengo egun balioiduna arte.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 8 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

c) Aldizkako jakinarazpen kolektiboa duten zorren kasuan, Udalak kobrantza egutegian finkatutako bi hileko epean, egutegiaren lehen egunetik zenbatzen hasita.

Autolikidazio bidez eska daitezkeen zorren kasuan, borondatez ordaintzeko aldiari aurrez daiteke eskaera, dagokion diru-sarrera arautzen duen araudiko borondatezko ordaintzarako aurreikusitako epe barruan.

Epez kanpo aurkeztutako autolikidazioen kasuan, eskaera epez kanpoko autolikidazioarekin batera aurkezten denean soilik ulertuko da geroratzea edo zatikatzea borondatezko epean eskatzen dela.


IV. Borondatez ordaintzeko epean ordaintzak geroratzearen eta zatikatzearen zenbatekoa eta ondoreak.

1. Geroratze edo zatikatze baten epemugan ordaindu beharreko zenbatekoa izango da likidatutako kuota gehi hasiera batean likidatutako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren hurrengo egunetik dagokion ordaintza-eguna arte egindako ordaintza bakoitzak sortutako interesak.
2. Dagokion epe barruan ordaindu beharko dira zatiki bakoitzak sortutako interesak, zatikiarekin batera.
3. Geroratzeak edo zatikatzeak ekitaldi bat baino gehiago hartzen duenean, urte bakoitzerako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean onartzen den berandutze-interesaren tasaren arabera kalkulatu dira interesak.
4. Geroratzearen eta zatikatzearen berme gisa aurkeztuko balitz kreditu erakunde baten edo elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioa edo kauzioko aseguruaren bitartez egiten bada, legezko interes-tasa izango da eskatu ahalko den berandutze-interesa.
5. Borondatez ordaintzeko epean geroratzeko edo zatikatzeko eskaera aurkezten bada, ezin izango da epe exekutiboa hasi.
6. Ez bada onartzen borondatez ordaintzeko epean eskatutako geroratzea edo zatikatzea, epe hauen barruan ordaindu beharko da zorra:
 - a) Eskaera ukatzeko ebazpenaren jakinarazpena hil bakoitzeko 1. eta 15. egunen artean ematen bada: jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hileko 20. egunera arte.
 - b) Eskaera ukatzeko ebazpenaren jakinarazpena hil bakoitzeko 16. egunaren eta azken egunaren artean ematen bada: jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo bigarren hileko 5. egunera arte.

Aurreko epeetan egin beharreko ordaintzak barne hartuko ditu kuota likidoa gehi hasiera batean likidatutako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren hurrengo egunetik ordaintzaren egunera arteko berandutze-interesak.

Ordaintza ez bada egiten 1. idatzi-zatian adierazitako epean, epe exekutiboa hasiko da. Horrek esan nahi du epe exekutiboko errekarguak sortuko direla, likidatutako kuotaren gainean kalkulatu. Diru-sarrera egiten denean, hasiera batean likidatutako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren ondorengo egunetik aurrera zenbatuta kalkulatu dira berandutze-interesak.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (eusker)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 9 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

7. Borondatez ordaintzeko epean eskatutako geroratze- eta zatikatze-eskaeretan ez da berandutze-interesik eskatuko, betiere, sortzearen ekitaldian ordaintzen diren eta aldizkako ordainketa duten zorren gainekoak badira.

V. Epe exekutiboan zorrak geroratzeko eta zatikatze eskaerak formulatzeko epea.

1. Ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi aurreko edozein unetan aurkeztu ahalko dira epe exekutiboan dauden zorrak geroratzeko edo zatikatze eskaerak.
2. Udal zerbitzuek ahal bezain bizkor egingo dituzte eskaera onartu edo ezesteko ebazpenerako beharrezkoak diren izapideak, euren jardunetan idatzi-zati honetan ezarritako irizpideak aplikatuta.
 - a) Premiamendu prozedurak aurrera jarraituko du baldin eta zorra geroratzea edo zatikatzea eskatzerakoan, ondasun hauetakoren bat enbargatzeko izapideak egiten ari badira: kreditu erakundeetan irekitako kontuetako dirua; uanean bertan erabil daitezkeen kredituak, efektuak edota baloreak; soldatak, ordainsariak eta pentsioak.
 - b) Etenda geldituko dira a) idatzi-zatian adierazitakoez besteko jardun exekutiboak, harik eta geroratzea edo zatikatzeari buruzko ebazpena jakinarazten den arte.


VI. Epe exekutiboan eskatzen diren zor-geroratze eta zatikatzeen zenbatekoa eta ondoreak.

1. Geroratze edo zatikatze baten ondoriozko zorren zenbatekoa, kontzeptu hauen batura izango da:
 - Likidatutako kuota.
 - Berandutze-interesak, likidatutako kuotari aplikatuta eta artikuluan honen IV. epigrafean aurreikusitako moduan kalkulaturik.
 - Geroratzeko eskaera aurkezterakoan aplikatu beharko litzatekeen epe exekutiboko errekarua.
2. Premiamendu-probidentzia ematearen egintza gauzatu aurretik eskatutako geroratze edo zatikatzea onartzen denean, ez da probidentzia hori emango, baldin eta zordunak bere obligazioak betetzen baditu. Errekargu exekutiboa % 5 izango da.
3. Onartutako ordainketa-geroratzea edo -zatikatzea premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jaso ondoren eta ZFAoren 61.5 artikuluan finkatutako epea igaro aurretik eskatzen denean, % 10 eskatuko da premiamendu-errekargu gutxiti gisa.
4. Ez bada onartzen epe exekutiboan eskatutako ordainketa-geroratzea edo -zatikatzea, premiamendu-prozedura hasi edo jarraitu beharko da. Berandutze- interesa hasiera batean likidatutako kuotaren gainean eta epe exekutiboa hasten denetik.

VII. Geroratze eta zatikatze eskaerekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

1. Geroratzeko edo zatikatze eskaeran, datu hauek eduki beharko ditu nahitaez:

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 10 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- a) Ordaintzeko betebeharraren duenaren izen-abizenak edo sozietate izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-helbidea.
- b) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren identifikazioa.
- c) Eskara aurkezteko arrazoiak, ezarritako epe barruan ordaintzea eragozten duten zailtasun ekonomikoak justifikatuta.
- d) Eskaintzen diren epeak, kontuan hartuta 3.000,00 eurotik beherako zenbatekoa duten zorrak ezin direla geroratu edo zatikatu 6 hilabete baino gehiago.
- e) Eskaintzen den bermea, zorraren zenbatekoa 3.000,00 eurotik gorakoa denean.
- f) Ordainketa bankuan helbideratzeko agindua, VII. epigrafean ezarritakoaren arabera.
- g) Lekua, eguna eta eskatzailearen izenpea.

2. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerarekin batera hau aurkeztu beharko da:

- a) Zorra 3.000,00 eurotik gorakoa bada eta ez badira betetzen b) idatzi-zatiko inguruabar bereziak, kreditu erakunde baten abal solidarioa aurkezteko konpromisoa edo nahikotzat jotzen den beste berme bat.
- b) Bermea aurkezteko beharretik salbuestea eskatzen denean, artikuluko honen IX.5.b) epigrafean aurreikusitako baldintzak betetzearen justifikazioa.
- c) Ezarritako epean ordaintzea tarte batez eragozten duten ekonomia- edota finantza-zailtasunen justifikazioa.


3. Eskarak ez baditu betetzen aurreko betebeharrak, errekerimenduaren jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik aurrerako 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko, betiere, ohartarazita ezen adierazitako epe barruan errekerimenduari jaramon egin ezean, eskaera ez aurkeztuzat joko dela eta izapide gehiago barik artxibatuko dela.

4. Geroratzea edo zatikatzeko eskaera justifikatzeko zailtasun ekonomikoak dauden ala ez eta eskaintako bermea nahikoa den ala ez baloratzearen ondoretarako, udal kontu-hartzaileak eta Aholkularitza Juridikoko Udal Zerbitzuek dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahalko diete eskatzaileei, kasuaren konplexutasunaren arabera zehaztuko duten epearen barruan.

5. Geroratze- edo zatikatzeko eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada eta 3. eta 4. idatzi-zatietan aipatutako errekerimenduei jaramon egiteko epea ordaintzeko epea bukatu ondoren bukatzen bada, eta ez bazaie jaramonik egiten errekerimenduei, epe exekutiboa hasiko da eta, beraz, epe exekutiboari dagozkion errekareruak ordaindu beharko dira.

6. Epe barruan erantzuten direnean akatsak zuzentzeko errekerimenduak edo dokumentazio osagarria aurkeztekoak, baina irizten bazaio antzemandako akatsak ez direla zuzendu edo ez direla betekizunak behar bezala bete, ez da onartuko geroratze- edo zatikatzeko eskaera.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 11 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

VIII. Ordainketak helbideratzea.

1. Geroratutako edo zatikatutako zenbatekoak banku-helbideratze bidez ordaindu behar dira. Ondore horietarako, geroratze- edo zatikatze-eskaerekin batera, helbideratze-agindua aurkeztu beharko da, bezeroaren kontu kodea eta kontuan kobrantza egin behar duen kreditu erakundearen datuak adierazita.
2. Geroratutako edo zatikatutako zorren ordainketa helbideratzea agindu dezakete ordaintzeko betebeharra dutenek edo, dagokionean, euren legezko edo borondatezko ordezkariak.
3. Ordaintzera behartutakoek ordainketa geroratu edo zatikatuen zenbatekoak kargatzeko adierazten dituzten kontuek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - a) Ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren edo kontuan kargatzeko berariazko baimena eman duen pertsona baten titulartasuneko izatea.
 - b) Ordainketak helbideratzeko aukera duen kontu bat izatea.
4. Helbideratutako zorrak ordaindutat joko dira ordaintzeko betebeharra duen pertsonaren kontuan kargua egiten den egunean.
5. Ordaintzeko betebeharra dutenek helbideratze-kontua aldatzeko eska dezakete, geroratzearen edo zatikatzearen ondoriozko obligazioak betetzeko epeak dirauen bitartean. Udalak kontua aldatzea onartu beharko du.
6. Geroratutako edo zatikatutako zorrak hil bakoitzeko 1. egunean kargatuko dira kontuan.


IX. Bermeak eratzea eta betebehar horretatik salbustea.

1. Izaera orokorraz, 3.000,00 eurotik gorako zorren geroratzeak edo zatikatzeak bermatzeko beharrezkoa izango da Udalaren aldeko abal solidario bat eratzea kreditu-erakunde batean edo elkar bermatzeko sozietate batean, edo kauzio-asegurua izatearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Abala zorraren zenbatekoaren eta geroratzeak edo zatikatzeak sorrarazten dituzten berandutze-intereszen zenbatekoaren baturaren adinakoa izan behar da, gehi partida bietako baturaren % 25 gehiago. Abal honen iraungitze epea, gutxienez ere, emandako epeak baino sei hilabete luzeagoa izan behar da eta Kontu-hartzailtzan modu egokian gordailututa egon beharko da.
2. Abala lortzea ezinezkoa dela justifikatzen denean, beste berme batzuk onartu ahalko dira. Berme horiek nahikoa diren ala ez baloratuko du funtsen kontu-hartzaileak eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak.

Zehazki, Udalaren aldeko alde bakarreko hipoteka bat eratzea onartu ahalko da berme gisa; dagokionean, beharrezkoa izango da eskatzaileak eranstea Jabegoaren Erregistroan inskribatutako kargen ziurtagiria eta horietan ordaintzeke dagoen saldoaren ziurtagiria.
3. Bi hilabeteko epean eratu beharko da bermea, eskaera onartzeko erabakiaren jakinarazpena eman ondorengo egunetik hasita. Epea agortzen bada bermea formalizatu gabe, berehala exijituko da zorra

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 12 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

premiamendu bidez, epe exekutiboari dagozkion interesekin eta errekaruekin, betiere, ordaintzeko arazko epea amaitu bada. Geroratzea edo zatikatzea epe exekutiboan eskatzen bada, premiarendu-prozedurak aurrera jarraituko du.

Udal Zerbitzuek ordaintzeko betebeharrak duen pertsonari edo haren ordezkariari bidaliko dizkiote dagozkion ordaintze-errekerimenduak, horiek egikaritzeko dokumentuekin batera.

4. Ordaintzeko betebeharrak duenak Udalarik eska diezaioteko kautelazko neurriak hartzea, aurreko idatzi-zatietan aurreikusitako bermeen ordezkari. Oso egoera berezietan egokiak suertatuko diren neurrien artean eta hauek onar daitezke:

- a) Atxikitzea zordunaren aldeko eskubide bat sortu duten zerga-itzulketen ordainketak edo Udalarik emandako zerbitzu edo horniduren fakturak.
- b) Zordunaren ondasun eta eskubideen enbargo prebentiboa egitea eta, dagokionean, idatzizko ohar prebentiboa jasotzea.

Kautelazko neurrien ondoreak etengo dira zorra kitatzen denean edo, interesdunak hala eskatuta, zor hori nahikotzat jotako beste berme batez ordezkari erabakitzen denean.

5. Ez da onartuko kautelazko neurri gisa ondasunen eta eskubideen enbargo prebentiborik bermatu behar diren zorrak kobartzeko nahitaezko betearazpen-prozesu baten barruan horien enbargo exekutiboa agindu izan denean edo agin daitekeenean.

6. Kasu hauetan ez da bermerik aurkeztu behar:

- a) Zorren zenbatekoa 3.000,00 eurotik beherakoa denean.
- b) Zergapekoak zorra bermatzeko ondasunik ez duenean eta bere ondorearen exekuzioak dagokion ekonomia jardueraren eta enplegu mailari modu esanguratsuan eragin diezaiotekenean.
- c) Eskatzailea herri administrazio bat denean.


7. Alkate-udalburuaren eskumena da bermeak onartzea eta bermeak ordezkari.

X. Geroratzea onartu ondoren ez ordaintzearen ondorioak.

1. Borondatez ordaintzeko epean eskatutako geroratzeen kasuan, geroratutako zenbatekoak ordaindu gabe badaude epemuga igaro ondoren, bete gabeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasiko da epe exekutiboa. Neurri hauek hartuko dira:

- a) Ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaie zordunei, kontzeptu hauek ordain ditzaten:
 - Kuota geroratua.
 - Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epean diru-sarrera egiteko epemugaren biharamunetik diru-sarrera egiten den egunera arte sortu diren berandutze-interesak.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (eusker)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 13 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- Zorraren printzipalari aplikatutako % 5eko errenergua.

b) a) idatzi-zatiko errekerimenduan ezarriko da, epe hauen barruan ordaindu behar dela zorra:

- Jakinarazpena hil bakoitzeko 1. eta 15. egunaren artean egiten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo bigarren hileko 20. egunera arte.

- Jakinarazpena hil bakoitzeko 16. eta azken egunaren artean egiten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo bigarren hileko 5. egunera arte.

c) Zorra ez bada kitatzen b) idatzi-zatian ezarritako epeetan, premiamendu-probidentzia emango da.

Behin premiamendu-probidentzia jakinarazita, kuota, berandutze-interesak eta % 10eko errenergua barne hartzen dituen zorra epe hauetan ordaindu beharko da:

a) Probidentziaren jakinarazpena hil bakoitzeko 1. eta 15. egunen artean ematen bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hil bereko 20. egunera arte edo, egun hori larunbata edo baliogabea balitz, hurrengo egun baliodunera arte.

b) Probidentziaren jakinarazpena hil bakoitzeko 16. eta azken egunen artean ematen bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hileko 5. egunera arte edo, egun hori larunbata edo baliogabea balitz, hurrengo egun baliodunera arte.

Baldin eta epe horien barruan ez bada ordaindu, bermea exekututako da, eratuta baldin balego. Ez badago eratutako bermerik, premiamendu-prozedura abiaraziko da.

2. Epe exekutiboan eskatutako geroratzen kasuan, epemuga iristean ez bada bete geroratutako zenbatekoa ordaintzeko obligazioa, honela jardungo da:

a) Baldin eta zorrak epe exekutiboaren hasieraren eta premiamendu-probidentziaren jakinarazpenaren arteko epean daudenean egiten bada eskaera, zor osoa ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaio, ondorengo kontzeptuak barne hartuta:

- Kuota geroratua.


- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugatik eta ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.

- Zorraren printzipalari aplikatutako % 5eko errenergua.

Artikulu honetako 1.b) idatzi-zatian seinalatu diren epeetan zorra ordaindu beharko da.

Ez bada zorra ordaintzen aipatutako epeotan, premiamendu-probidentzia emango da, epigrafe honetako 1.c) idatzi-zatian aurreikusitako ondorioekin.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 14 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360547 C3WMJ-6ZR8Y-95NDD E/C1/A91B95DC1C04B9D7C46F8946C9D2C9E4) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=2&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- b) Baldin eta eskaera egitean zorrak premiamendu-probidentziaren jakinarazpenaren eta ZFAOren 61.5 artikuluan adierazitako epeen indarraldiaren artean badaude, zor osoa ordaintzeko errekerimendua bidaliko da, horren barne hartuta, kuota, berandutze-interesak eta premiamendu-errekargua, hots, % 10eko errekkargua. Ordainketa epigrafe honetako 1.b) idatzi-zatian adierazitako epeetan egin beharko da.

Ez bada jakinarazitako zorra ordaintzen epe horietan, bermea exekutatu da edo, bermerik ez badago, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du.

- c) Geroratzeko eskaera ZFAO 61.5 artikuluan ezarritako epeak igaro baino lehen formulatu bada, zor osoa ordaintzeko errekerimendua bidaliko da, kontzeptu hauek barne hartuta:

- Kuota geroratua.
- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugatik eta ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.
- Zorraren printzipalari aplikatutako % 20ko errekkargua.

Zorra ordaindu beharko da epigrafe honetako 1.b) idatzi-zatian seinalatu diren epeetan.

Ez bada jakinarazitako zorra ordaintzen epe horietan, bermea exekutatu da edo, bermerik ez badago, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du.

XI. Berme barik edo berme orokorraz emandako ordainketen zatikiak ordaintzen ez direnean hartu beharreko neurriak.

1. Borondatez ordaintzeko epea agortu gabe zatikatzeko eskatu ziren zorren zatiki baten epemuga iritsi eta ordaindu ez bada, ordaindu gabeko zatikiaren epe exekutiboa hasiko da. Neurri hauek hartuko dira:


- a) Zordunei ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaie, ondorengo kontzeptuak ordain ditzaten:

- Ordaindu gabeko zatikiaren zenbatekoa.
- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren biharamunetik ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.
- Zorraren printzipalari aplikatutako % 5eko errekkargua.

Zorra X. epigrafeko 1.b) idatzi-zatian adierazitako epeetan ordaindu beharko da.

Epe horietan ez bada ordainketarik egiten, ordaintzeke geratu diren gainerako zatiki guztiak iraungitatz hartuko dira eta zor guztiarekiko premiamendu-prozedura hasi beharko da. Horri dagokionez, premiamendu-probidentzia emango da eta zordunari jakinaraziko zaio zor osoa ordaindu beharko duela X. epigrafeko 1.c) idatzi-zatian adierazitako epean, betiere, berandutze-interesak eta % 10eko errekkargua gehituta.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 15 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Ez bada epe horietan ordaintzen, bermea exekutatu da, baldin badago. Bermerik ez badago, zorra, berandutze-interesak eta derrigorrezko exekuzio-prozedurarengatik % 20ko errenergua ordaindu beharko dira.

2. Eskera egitean zorrak epe exekutiboan badaude, zor osoaren premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du eta neurri hauek hartuko dira:

a) Zordunei ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaie, ondorengo kontzeptuak ordain ditzaten:

- Zatikaturako zorraren zenbatekoa.
- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren biharamunetik ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.
- Zatikatzeko-etsakeraren uneari dagokion premiamendu-errekargua edo errenergua exekutiboa zorraren zenbateko printzipalari aplikatuta.

Zorra ordaindu beharko da X. epigrafeko 1.b) idatzi-zatian seinatu diren epeetan.

Epe horietan ez bada ordainketa egiten, garrantiarik badago, exekutatu egingo da. Bermerik ez badago, zorra, berandutze-interesak eta derrigorrezko exekuzio-prozedurarengatik % 20ko errenergua ordaindu beharko dira.

XII. Zatikari bakoitzarekiko berme partzial eta independenteekin emandako zatikatzeak ordaintzen ez direnean hartu beharreko neurriak.

1. Zatikatzeko borondatez ordaintzeko epean eskatu denean, zatiki bat ordaindu gabe uzteak zatiki hori soilik exijituko da premiamendu bidez. Neurri hauek aplikatuko dira:

a) Zordunei ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaie, ondorengo kontzeptuak ordain ditzaten:


- Ordaindu gabeko zatikiaren zenbatekoa.
- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren biharamunetik ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.
- Ordaindu gabeko zatikiaren zenbatekoaren gaineko % 5eko errenergua.

Zorra X. epigrafeko 1.b) idatzi-zatian adierazitako epeetan ordaindu beharko da.

Epe horietan ez bada ordaintzen, ordaintzeke dauden gainerako zatiki guztiak iraungituz joko dira eta zor guztiaren premiamendu-prozedura abiarazi beharko da. Horri dagokionez, premiamendu-probidentzia emango da eta zordunari jakinaraziko zaio zor osoa ordaindu beharko duela X. epigrafeko 1.c) idatzi-zatian adierazitako epean, betiere, berandutze-interesak eta % 10eko errenergua gehituta.

Epe horietan ez bada ordaintzen, bermea exekutatu da, baldin badago.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (eusker)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 16 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

2. Eskera egitean zorrak epe exekutiboan badaude, ordaindu gabeko zatiaren premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du. Neurri hauek aplikatuko dira:

a) Zordunei ordaintzeko errekerimendua bidaliko zaie, ondorengo kontzeptuak ordain ditzaten:

- Zatikaturako zorraren zenbatekoa.
- Hasierako kuota borondatez ordaintzeko epemugaren biharamunetik ordainketa egiten den egunaren arte sortutako berandutze-interesak.
- Zatikatzeko-etsakeraren uneari dagokion premiamendu-errekargua edo errekaru exekutiboa, zorraren zenbateko printzipalari aplikatuta.

Zorra X. epigrafeko 1.b) idatzi-zatian adierazitako epeetan ordaindu beharko da.

Epe horietan ez bada ordainketa egiten, bermea exekututuko da.

3. Zatikatzeko erabakiak indarrean iraungo du berme partziala eta independenteak barne hartzen ez dituen zatikiei dagokienez.

4.- IKUSKAPENA

Zergei buruzko Arabako Foru Arau Orokorra den otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan eta Diputatuen Kontseiluak ekainaren 6an emandako 41/2006 Foru Dekretuan, Arabako Lurralde Historikoko Ikuskapen Erregelamendua onartzekoan ezarritakoari jarraiki egingo da zerga-ikuskapena.

5.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta horri egindako ondorengo aldaketetan ezarritakoarekin bat kalifikatu eta arautuko dira zerga arloko arau-haustekak.

Zerga arauak hausteagatik aplikatu beharreko zigorrak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritakoarekin bat bideratuko dira.


6.- ADMINISTRAZIO BIDEAN DAUDEN EGINTZAK BERRIKUSTEA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat egingo da administrazio bidean zergei dagokienez ematen diren egintzen berrikuspena.

II. AZKEN XEDAPENA

Kudeaketari, Bilketari eta Ikuspenari buruzko Ordenantza Fiskal Orokor hau, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2016ko urriaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 21 egunean. Indarrean jarriko da 2017ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 39- Ordenanza fiscal 1 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: C3WMJ-6ZR8Y-95NDD Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:31 Página 17 de 17	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludioiko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludioiko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Elektronikoki sinatutako dokumentua